



MUXIKA ARRIETA, Joxemari

Soziologoa
Errebuelta, 2, 14. B
20500 Arrasate
muxika@iedatos.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 125-130]

Euskaraz idatzitako komunikabide lokalen egoera

(The situation of local media in Basque)

a

Idizkari lokalek pisu berezia daukate euskarazko komunikabideen artean, ia %40a osatzen baitute. Azken hamar urteetan ugaltu egin diren arren, oraindik ez dago gaztelarazko eskaintzarekin alderatzerik. Bestalde, diru publikoaren laguntza izaten jarraitu behar dute beren biziraupena bermatzeko.

L

Las revistas locales ocupan un destacado lugar dentro de los medios de difusión en euskara, puesto que forman casi el 40%. A pesar de que en los últimos diez años han proliferado considerablemente, la oferta no es comparable a la existente en castellano. Por otra parte, las subvenciones les son aún absolutamente necesarias.

L

Les revues locales occupent une place importante parmi les moyens de diffusion en euskera, puisqu'elles représentent près du 40%. Bien que pendant les dix dernières années elles ont proliféré considérablement, l'offre n'est pas comparable à celle de l'espagnol. D'autre part, les subventions leur sont indispensables.

1. **Sarrera.** 2. **Euskarazko komunikabide lokal idatziak:** 2.1. Euskarazko komunikabide lokalak: 2.1.1. Prentsa nazionala. 2.1.2. Eskoletako prentsa. 2.1.3. Berripapera. 2.2. Aldizkari lokalak. 3. **Aldizkari lokalen egoera:** 3.1. Aldizkarien sorrera. 3.2. Aldizkarien zabalkundea: 3.2.1. Herrialdeka aldizkarien kopurua. 3.2.2. Aldizkarien tirada. 3.2.3. Zabalkundea sendiko. 3.3. Finantziazioa. 4. **Desagertutako aldizkariak.** 5. **Ondorioak.**

1. Sarrera

Euskararen Normalkuntzarako Legearen XVII. Urteurrena Mintegiaren¹ helburua, "Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntzaren normalizazioaren araudia garatzeko hausnarketa sorta bat biltzea da", antolatzaileek egitarauan diotenez.

Hizkuntza baten erabileran komunikabideek duten eragina kontuan harturik, jardunaldien antolatzaile arduradunek, komunikabideei buruzko hausnarketa batzuk sartzea egokia dela erabaki dute eta lan hau horretarako materiala da.

Gure egitekotzat ez dugu hartu Euskararen Normalkuntzarako Legea bera aztertzea. Legeari berari buruzko hausnarketa beste batzuk eginen dute. Gure ekarpena komunikabide lokalak aztertuz egin dugu, batez ere prentsa idatziaren inguruan, eta soziologiaren ikuspuntutik garatua dago. Guk, komunikabide lokal idatziek izan duten bilakaera eta gaur egungo egoera aztertu dugu.

Zalantzarik inork izan ez dezan, luzatu baino lehen esan behar dugu euskara hutsean idatzita argitaratzen diren aldizkariak ari garela.

Komunikabide lokalen gaur egungo egoera eta bilakaeraren azterketa honetan hainbat aldagaiez baliatu gara: jarraian azaltzen dugu zein aldagai diren hauek eta zein bide jarraitu dugun.

Lehenengo komunikabide lokalak definituko ditugu. Gaur argitaratzen diren euskarazko aldizkariak buruzko ikuspegi orokorra emango dugu idatzizko komunikabide lokalak identifikatuz eta, hobeto kokatzeko, euskaraz idatzitako beste komunikabideek ere aipatuko ditugu.

Ondoren komunikabide lokalek duten egoera aztertuko dugu ondorengo aldagai hauen inguruan: sortu ziren urtea, argitaratzen diren herrialdea, zenbaki bakoitzeko duten tirada eta finantziazio modua.

2. Euskarazko komunikabide lokal idatziak

Gaur egun 175 aldizkari baino gehiago argitaratzen dira euskaraz Euskal Herrian. Garrantzi aldetik, maiztasuna, tirada eta orrialdeak kontuan hartuta, alde handiak daude batzuetatik beste batzuetara. Hauetatik 69 dira komunikabide lokalak. Gehienak herri aldizkariak.

2.1. Euskarazko komunikabide lokalak

Ikuspegi orokorra gordetzen lagun diezagun komunikabide lokalen testuingurua jarri dugu. Horretarako komunikabide lokalak ez diren beste aldizkariak hiru multzotan jarri ditugu: prentsa nazionala, eskoletako prentsa eta berripaperak.

2.1.1. Prentsa nazionala

Hedadura nazionala duten argitalpenei deitzen diegu lan honetan prentsa nazionala. 48 bat aldizkari osatzen dute prentsa nazionala eta batez beste 80na orrialde inguru dituzte. Adibide batzuk jartzeko, hauek aukeratu ditugu: *Argia* astekaria 10.000 aleko tiradarekin; *Aizu* hamabostekaria 1.600 alerekin; hilabetekariaren artean, *Ikastola* 43.500 alerekin, *Kili-kili* 6.000 alerekin, *Hik Hasi* 5.000 alerekin, *Ipurbeltz* 2.500 alerekin, *Habe* 1.750 alerekin, *Zer* 1.300 alerekin. Bakanago argitaratzen direnak, *Jakin* eta beste hainbat, ez ditugu zerrenda honetan sartu.

2.1.2. Eskoletako prentsa

Eskoletan antolatzen diren kazetaritza lantaldeak direla eta, sormenari indarra emateko argitaratzen diren aldizkariak osatzen dute eskoletako prentsa. Gutxienez 33 aldizkari dira, 40na orrialde inguru dituztenak. Gehienak urtean hiru alditan argitaratzen dira. Adibide bezala hartzekoak dira: *Auzoka* 7.800 aleko tiradarekin eta urtean hirutan, *Prentsetan gabiz* 3.500 aleko tirada eta urtean bost alditan, *Txikitto* 1.300 aleko tirada hilero, *Arabaldea* 2.000 aleko tirada eta urtean hirutan, *Txanpa* 3.500 aleko tirada eta urtean hirutan.

2.1.3. Berripapera

Hainbat erakundek euren kideak informatzeko argitaratzen duten aldizkaria da berripapera. Badira 27ren bat, eta ia denak 4 orrialdekoak dira. Adibide bezala ematen ditugu: *Campus* 2.500 aleko tirada hilero, *Euskararen*

1. Lan hau, EUSKO IKASKUNTZAK eta IVAPEk, 1999ko uztailaren 1ean eta 2an Donostiako Miramar Jauregian antolatutako mintegirako gertatua izan zen.



ARGIA astekaria.

Berripapera 13.000 aleko tirada hilero, *Karrika* 3.500 aleko tirada hilero, *Uema* 19.000 aleko tirada bihilabetero, *Seine* 7.500 aleko tirada urtean hirutan eta *Geurean* 1.200 aleko tirada hilero.

Jarritako adibideak bolumen aldetik adierazgarrienak dira. Beste batzuek askozaz zabalkunde txikiagoa baitute. Bolumena ezberdintasunen adierazle bat baino ez izan arren, aldizkari bakoitzak besteekiko duen garrantziaren ikuspegi bat azaltzeko balio duela uste dugu eta hori da agertu nahi izan duguna.

Aldizkariak harpidetza sistema ezberdina dute. Berripapera, doan dira denak, eta ez dute iragarkirik erabiltzen, batek edo bestek izan ezik. Eskoletako prentsa doan da, baina eskola batzuetan, heren batean gutxi gorabehera, ikasleek saldu egiten dute ikas bidaia finantziatzeko. Prentsa nazionala saldu egiten da, kasuen %25ean izan ezik. Hauek, oso publizitate gutxi erabiltzen dute, batzuek laguntzaileena edo babesleena badarabilte ere.

Komunikabide lokalen artean, eskualdekoak ere hor sartzen ditugu, badira hainbat irrati (14) eta telebista (6) ere, euskara hutsean emititzen dutenak. Guk horiek alde batera utzi ditugu². Ez dugu ezagutzen ikusentzuneke eta irrati buruzko azterketa zehatzik eta ez du merezi aipamen orokorretan gelditzeak. Ikuspegi orokor hau eginik gure helburu zehatzari helduko diogu. Gure lanak euskaraz idatzitako prentsa lokalaren azterketa du helburu eta horretara mugatuko gara aurrerantzean.

2.2. Aldizkari lokalak

Komunikabide lokalaz ari garenean (eta gure kasuan prentsa lokalaz), udalerrian edo eskualde batean banatzen diren aldizkariak ari gara. Multzo honetan herri aldizkariak eta beste batzuk sartu ditugu. Herri aldizkariak, udalerri edo eskualdean, "albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea" helburu dutenak dira. Hauetaz aparte, herri edo eskualde mailan argitaratzen diren aldizkari bereziak sartu ditugu, literatura, gazteak, mendigoizaleak, eta berripapereen bat ere bai³.

Aldizkari guztietatik 69 aldizkari lokalak dira eta hauetatik 58 herri aldizkariak. Nolanahi ere, mugak jartzea ez da erraza izaten eta zifrak, beti ere, erlatibotasun batekin ematen ditugu.

3. Aldizkari lokalen egoera

3.1. Aldizkariaren sorrera

Aldizkari lokalak noiz sortu ziren ikus dezakegu hurrengo taulan (ikus 1. taula). Bertan agertzen da sortze urtearen arabera ordenatuta 69 aldizkari horien bilakaera.

1. taula: Aldizkari lokalen bilakaera

-1984	1984-1988	1989-1993	1994-1998	1999
	3	4	29	31 2

Garbi ikus daitekenez, 1988z geroztik hartu zuten habaila herri aldizkariak. Urte horretako abenduan argitaratzen hasi zen lehen herri aldizkari moderno bezala kontsideratua dagoen *ARRASATE PRESS*.

2. Telebistak: Arrasate, Aretxabaleta, Oarso, Ttipi Ttapa, Xaloe eta Zarautz. Irratiak: Bilbo Hiria, Gure Irratia, Irulegi, Xiberuko Boza, Bizkaia, Xorroxin, Euskalerrria, Aralar, Irati, Karrape, Arrate, Guaixe, Arrasate eta Oñati.
3. Aldizkari lokalen artean sartu ditugunak hauek dira: Pagoeta, Irakutetzin, Gaztetxulo, Galtzatxiki, Txikitto, Prentsetan gabiz, Brankas, Hamaika Litera, Arkupe, Atzoko Andoain eta andoaindarrak eta Zenbat Gara.

Euskararen Normalkuntzarako Legea indarrean jarri aurretik, lehendik zetozen hiru aldizkari⁴ lokalak era zaharrean eginak ziren. 1988ko mugan agertzen dira beste hiru aldizkari, *Hondarrabia* (1986) hilerokoa, Oñatiko *Kontzejupetik* (1987) hilerokoa eta Itasondoko *Kantilape* (1988) urtean hirutan argitaratzen zena.

Arrasate Press-ek⁵, era profesionalean, diseinu berriaz, edukietan berritzaile eta tokira mugatua, publizitatez hornitua eta autoedizioz egin izateko bidea hartu zuen. Doan izanik, harpidedun direnei, etxera entregatzen zaien aldizkaria da. Joxe Aranzabalek *Eusko News & Media* aldizkari elektronikoan⁶ dioen bezala, bide hau jarraitu dute herri aldizkariak

Adieraztekoa dela uste dugu aldizkarien jabeak kultur elkarteak direla eta azpimarratzekoa dela argitalpen hauentzat kolaborazio oso garrantzitsua izaten dela bertako bazkideen ekarpena (diru kuotak ordaintzea, jestio lanak egitea eta aldizkarian idaztea, e.a.).

3.2. Aldizkarien zabalkundea

Komunikabide lokalen errealitatea ezagutzeko eta izan dezaketen garrantziaz jabetzeko, sailkapen batzuk egin ditugu, irizpide hauen arabera:

- Argitaratzen diren herrialdea.
- Zenbaki bakoitzeko tirada.

3.2.1. Aldizkari kopurua herrialdeka

Herrialde bakoitzean argitaratzen diren aldizkari kopuruen arteko aldea handia da. Eta ezberdintasun hori ez da justifikatzen herrialde bakoitzetik bestera biztanleriaren aldea kontuan hartuta, eta ezta ere euskaldungoaren proportzioaren arabera (ikus 2. taula).

2. taula: Herrialde bakoitzeko aldizkari kopurua

Herrialdea	Aldizkariak	%
Araba	1	1,5
Bizkaia	20	28
Gipuzkoa	40	59
Iparralde	1	1,5
Nafarroa	7	10
Guztira	69	100

Lauki honetan garbi dago prentsa lokalari dagokionez zein herrialde nabarmen den: Gipuzkoa. Gipuzkoak aldizkarien %59a argitaratzen du eta honek 100.000 biztanleko⁷ 7,0 aldizkari esan nahi du eta 100.000 euskalduneko 10,6 aldizkari, Euskal Herri guztian batez beste 100.000 biztanleko 2,8 eta 100.000 euskalduneko 7,7 argitaratzen direnean.

Herrialde batetik bestera dauden aldeek ez dute zer ikusi handirik bakoitzak duen biztanle kopuruarekin, ez eta euskaldun kopuruarekin ere. Aldagai horiek baino esanahi zuzenagoa izan dezakete euskaldunek elkarrekin harremanak izateko dituzten aukerak eta daukaten ekimenak. Hipotesi hori egitera bultzatzen gaitu gure azterketak. Euskal Herriko eremuan, Bizkaiko euskaldungoa %38koa da eta bertako aldizkariak %28 dira. Gipuzkoako euskaldungoa %37,5koa da eta bertan argitaratzen diren aldizkariak %59 dira. Nafarroako euskaldungoa %9,4koa izanik, bertako aldizkariak %10 dira. Arabako eta Iparraldeko herrialdeetako euskaldungoak %6,5 eta %8,5 osatzen dute eta euskaraz idatzitako aldizkariak, berriz, bakoitzean %1,5 dira.

3.2.2. Aldizkarien tirada

Idatzizko komunikabideen maiztasunak eta tiradak adierazten digute aldizkari horrek izan duen eragina eta, beraz, duen garrantzia. Aldagai hori kontuan hartuta, hurrengo laukiko sailkapena egin dugu (ikus 3. taula).

3. taula: Aldizkari lokalen maiztasuna eta tirada

Maiztasuna	Aldizkari kopurua	Tirada bateratua	Urteko tirada ⁸ %tan
Astero	8	37.000	54,6
Hamabostero	8	28.500	21,0
Hilero	27	51.550	19,0
Bakanago	26	38.800	5,4

Astero argitaratzeaz gain daukaten tirada kontuan hartuta, asteroko aldizkarien garrantzia nabaria da, ia guztien %55a.

Herri aldizkari ezberdinetan egin diren azterketek⁹ erakusten dutenez, tirada hauei batez bestekoa aplikatuta, denen artean 468.000 irakurletik gora dituzte.

4. Legearen aurretiko aldizkari lokalak: *Herria* (1944) informazio orokorreko aldizkaria, *Ttipi Ttapa* (1981) garai hartan literatur aldizkaria zena eta *Artzai Deia* (1955) elizkoia eta kultura orokorraz jarduten duena.
5. *Arrasate Press* sortu zuen lan taldeak, Ipar Ameriketako aldizkarigintzan zebilkiten teknologia ezagutzen zuen eta eredu praktikoetako bat, Tuterako *La Rivera de Navarra* izan ei zen.
6. ARANZABAL, Joxe. Euskarazko herri prentsaren bilakaera, In: *Eusko News & Media*, 8, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1998. ARANGUREN, Asier. Gutxi baina onenak. In: *Eusko News & Media*, 26, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999.
7. Kalkulo hauek egiteko erabili dugun euskaldungoa eta biztanlegoa 15 urtez gorakoa izan da. Adin muga honetatik gorakoa hartzen da irakurle edo audientzia potentzial bezala, neurketetan.
8. Urte guztian banatutako aleen zenbatekoa %tan.
9. ARANGUREN, Asier. Lehengo bera.

3.2.3. Zabalkundea sendiko

Hurrengo taulan ikus daiteke aldizkari hauen zabalkundea sendiko (ikus 4 taula). Euskal Herri guztia hartuta, zabalkunde oso urria dutela agertzen da datu horietan.

4. taula: Zabalkundea ehun sendiko

Maiztasuna	Lokalak	Guztiak
Astero	4,1	5,2
Hamabostero	3,1	3,3
Hilero	5,7	15,4
Bakanago	4,3	22,0

Euskal Herri mailan, ehun sendiko 4,1 astekari, 3,1 hamabostekari eta 5,7 hilabetekari zabaltzen dira. Hauetako prentsa nazionalaren, berripaperen eta eskoletako prentsaren zabalkundea erantsi arren, egoera erabat testinomiala dela adierazten dutela ezin ukatu. Horrela dela ikus daiteke, gaztelaniaz idatzitako aldizkariak OJD¹⁰ Hego Euskal Herriko ematen dituen datuak, eta euren artean 4.000 ale baino gehiagoko zabalkundea dutenak bakarrik hartuta ateratzen diren emaitzak alderatuz gero¹¹. Ehun sendiko, 113 astekari eta 29 hilabetekari zabaltzen dira gaztelaniaz, aldea izugarria da. Egunkarien zabalkundearen alderaketak, konfirmatu egiten du euskaraz eta gaztelaniaz zabaltzen diren aldea: euskaraz 1,4 eta gaztelaniaz 54 egunkari, ehun sendiko. Kontuan hartzeko gauza da gaztelaniazkoen balizko irakurleak, Hego Euskal Herrian, euskarazkoenak baino 2,7 aldiz gehiago direla. Baina faktore korrektorea erabilia ere, zabalkundean alde handia dago gaztelaniaz idatzitako aldea.

Aldizkari lokalen konzentrazio geografikoa begiratz gero haxe esan daiteke: lehenengo, Gipuzkoa nabaritzen dela aldizkari kopuruz eta baita tiradaz ere; eta, bigarren, Intxorta mendiak babesten dituen inguruko bailarak nabaritzen direla. Durangaldea, Deba Goiena eta Deba Barrena eskualdeak dira, astekariekin batez ere eta tiradaz ere bai, konzentrazioari handiena erakusten dutenak. Gune horretan argitaratzen eta banatzen dira zortzi astekarietatik bost, guztien %76ko tiradarekin, hamabostero bat eta sei hileroko, guztien %20ko tiradarekin. Alde batera jartzen baditugu Donostiako *Iruñxulo* eta Iparraldeko *Herria*, beste asterokoak, Durango, Eibar, Bergara, Arrasate, Elgoibar eta Legazpi herrietan argitaratzen dira.

3. 3. Finantziak

Nola finantziatzen dira, baina, doan banatzen diren aldizkariak? Guk dugun

informazioarekin ezinezkoa da galdera horri erabateko zehaztasunez erantzuna ematea. Hala eta guztiz ere, hurbilpen bat egiteko moduan gaude. Honetarako, herri aldizkarietan oinarritu gara eta euren finantziak egitura modeloa emango dugu.

Aldizkari hauen esplotazio ekonomikoaren egitura hurrengo taulan ematen dugu (ikus 5. taula).

5. taula: Aldizkarien egitura ekonomikoa

Sarrerak	%	Irteerak	%
Publizitatea	47	Pertsonala	42
Laguntza publikoa	46	Zerbitzuak	40
Beste laguntzak	3	Funtzionamendua	10
Harpidetza eta salmentak	4	Banaketa	6
		Inbertsioak	2

Herri aldizkariak, ia denak, laguntza publikoaz eta publizitateaz finantziatzen dira: 58tik 41 kasu horretan daude. Erakunde publikoek argitaratzen dituzten aldizkariak ez dute apenas publizitaterik egiten. Dirulaguntza eta publizitatea izateaz gain, saltzen diren aldizkariak badira, baina harpidetza salneurria sinbolikoa dute. Harpidetza kobratzen duten aldizkari lokalak 10 dira.

Sarrerak aztertzen ditugunean garbi dago dirulaguntza publikoek parte handia dutela: aldizkariaren sarreraren %46. Baina antzeko eginkizuna duten beste erakunde publiko askok baino dirulaguntza publiko txikiagoa dute¹². Publizitatea da garrantzi handiko beste sarrera bat, %47. Harpidetzekin edo salmentekin, orokorrean, sarrera urriak dira, %4. Izan ere, aldizkaria kobratzeak irakurle askok harpidetza uztea ekartzen du, eta irakurleak galtzea, euskaraz irakurtzea eragiteko helburua duten erakundeentzat aurkako norabidea hartzea da.

Publizitate bitartez egiten diren sarrerek azterketatxo bat merezi dute. Lehen esan dugun eredu aldizkariaren sarreraren %47 publizitate bidez lortzen dute. Beraz, publizitatea ez da testinomiala. Ez da militantismoz egiten den laguntzatxo bat. Profesionaltasunez egiten den lana da. Publizitate hau biltzeak lan asko eragiten dio aldizkaria argitaratzen duen erakundeari.

Kopuru aldetik, aldizkariaren orrialdeen %34 betetzen dute iragarki horiek. Beste era batera esanda, 40 orriko aldizkari bateko 12 orri, orri-oso iragarkiez beteta egon ohi dira eta beste 2 orri osorik, modulokako iragarkiekin betetzen dira.

Gure ustez, publizitatea kudeaketa kontuan izanik, argitaratzen diren beste euskarazko aldizkariak, ez dira hurbiltzen herri aldizkarietara.

10. OJD Oficina de Justificación de la Difusión.

11. MUXIKA, Joxemari. Gaztelaniaz idatzitako prentsaren zabalkundea HEHan. In: Mediatika, 7, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999.

12. Zerbitzu publikoa ematen duten erakundeak: hezkuntza, informazioa, osasun zainketa, kultura, ... duten hainbateko laguntza izatera iristeko alde handia dago oraindik. Eta EAEko legeetan, elebitasun osoa lortzea oinarritzko eginkizun publikoa da. Eta argitalpen hauek dira eginkizun horretarako tresna bat.

Irteerei buruz, pertsonalak eta zerbitzuak eramaten dute gastuen %82. Bataren eta bestearen artean aldakuntzak egon daitezke, zerbitzuen subkontratazioaren arabera. Adibidez, kazetaritza lanetarako eta publizista lanetarako plantilakoak erabili edo subkontratutako zerbitzuak erabiltzean datza aldea.

4. Desagertutako herri aldizkariak

Argitaratzen diren aldizkariak aritu gara orain arte eta ez dugu ezer esan desagertu diren aldizkariak. Ez dira asko. Argitaratzeari utzi dioten aldizkari lokalak sei dira. Zaharrena *Zeutzat*, Mendexan egina 1956tik 1963ra arte. *Gure erria* Barinaga-Etxeberrin 1957tik 1984ra arte argitaratu zena. Euskararen Normalkuntzarako Legea indarrean jarri aurretik argitaratzen ziren biak. Legeak indarrean darabatzan hamazazpi urte hauetan, *Gauziok au*, Markina-Xemeinen, 1992tik 1994ra arte; *Aiaupenanik*, Lakuntzan, 1992tik 1997ra arte, *Bost Axola*, Basaurin 1993tik 1998ra arte eta *Kantilape*, Itsaondo, 1988tik 1998ra arte argitaratu ziren.

5. Ondorioak

Aldizkari lokalek euskarazko aldizkariaren artean garrantzi handia dute. Aldizkari kopuru aldetik, guztien %40a dira. Zabalkundearen ikuspuntutik, berriz, zati hau hartzen dute: astekariak %79, hamabostekariak %95, hilabetekariak %37 eta bakanago argitaratzen diren %20. Beraz, euskaraz idatzitako aldizkariaren artean erdia baino gehiago dira.

Aldizkari lokaletan eta batez ere herri aldizkarietan, publizitateak lortzen den diru sarrera, %47 da. Aurrekontuaren zati oso garrantzitsua.

Herrialde bakoitzean gaur egun argitaratzen diren aldizkari lokalen kopurua euskaldun kopuruarekin alderatuta, Bizkaian ez dute Gipuzkoan eta Nafarroan hainbateko garapenik izan. Euskal Herriko eremuan, Bizkaiko euskaldunak %38koa da eta bertako aldizkariak %28 dira. Gipuzkoako euskaldunak %37,5koa da eta bertan argitaratzen diren aldizkariak %59 dira. Nafarroako euskaldunak %9,4koa izanik, bertako aldizkariak %10 dira. Arabako eta Iparraldeko herrialdeetako euskaldunak %6,5 eta %8,5 osatzen dute eta euskaraz idatzitako aldizkariak, berriz, bakoitzean %1,5a dira. Herrialde batetik bestera dauden aldeei buruzko arrazoiak jakiteko, euskaldunaren ekimenak zer esanik ba ote duen aztertzea komeniko litzateke. Gure ustez badu eraginik.

Euskaraz idatzitako aldizkariaren eskaintza azken hamar urteetan ugaltu bada ere, oraindik urria da gaztelaniaz dagoen eskaintzarekin alderatuz gero.

Euskararen Normalkuntzarako Legeak eraginik izan duen esatea oso zaila da. Esan dezakeguna da euskaraz idatzitako prentsarentzat diru laguntza publikoa poliki-poliki finkatzen joan dela, eta legearen eraginagatik izan dela pentsatzea bidekoa izan daiteke.

Azkenik, euskarazko aldizkariak diru publikoan laguntza izaten jarraitu beharko dute, bestela ezingo da bete euskaraz albisteak zabalduz euskararen erabilera areagotzeko helburua, horrela elebitasuna normalduaz. Informazioa ematea eta elebitasuna itsastea beste hainbat zerbitzu bezain zerbitzu publikotzat har daitekeenez, diruz laguntzea egokia da. Aldizkariak salduaz finantziatzea osatzea gerta daiteke, baina irakurlego pribilegiatu batekin gelditzeko arriskua dago. Eta hezkuntzan, osasun zainketan, kulturen, informazio publikoan eta abarretan diskriminaziorik onartzen ez den bezala, elebitasuna garatzeko arlo honetan ere ez litzateke onartzekoa.